*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Murgian, bi mila eta hamabosteko uztailaren bederatzian, iluntzeko zazpiak direnean, aurretik legearen arabera deialdia eginda, Ezohiko Bilkura egin da Udaletxeko Bilkura Aretoan. Behean zerrendatzen diren zinegotzi jaun-andreak bildu dira, Unai Gutiérrez Urkiza alkate jaunak zuzendu du bilkura eta Susana Zubiaur Zorrilla andreak Udalbatzako idazkari-lanak egin ditu.-

**ALKATEA**
UNAI GUTIÉRREZ URKIZA JN. (EH Bildu)
**BERTARATU DIREN ZINEGOTZIAK**
INMA ELORZA BERGARA AND. (EH Bildu)
GORKA IRIONDO GANTXEGI JN. (EH Bildu)
ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA AND. (EAJ-PNV)
MARTIN GORROTXATEGI MENIKA JN. (EAJ-PNV)
CONCHI LÓPEZ LÓPEZ AND. (EAJ-PNV)
JUAN CARLOS ALONSO MORAZA JN. (ZBG-ZNU)
SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE AND. (ZBG-ZNU)
JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA JN. (ZBG-ZNU)
LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ JN. (PP)
**BERTARATU EZ DEN ZINEGOTZIA**
AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA JN. (EH Bildu)

Arratsaldeko zazpietan bilkura publikoa irekita, Lehendakaritzaren aginduz aurreikusitako gai-zerrenda landu, eta adierazten ditudan ondoko erabakiak hartu dira.

**1.- AURREKO BILKURAREN AKTA ONARTZEA.**

En Murgia a nueve de julio de dos mil quince, siendo las diecinueve horas, previa convocatoria cursada en forma legal, se celebró Sesión Extraordinaria en primera convocatoria en el Salón de Sesiones de la Casa Consistorial con la asistencia de l@s Señor@s Concejales que debajo se relacionan bajo la Presidencia del Sr. Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza, actuando de Secretario la de la Corporación, Dª Susana Zubiaur Zorrilla.-

**ALCALDE**
DON UNAI GUTIÉRREZ URKIZA (EH Bildu)
**CONCEJALES ASISTENTES**
DOÑA INMA ELORZA BERGARA (EH Bildu)
DON GORKA IRIONDO GANTXEGI (EH Bildu)
DOÑA ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA (EAJ-PNV)
DON MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA (EAJ-PNV)
DOÑA CONCHI LÓPEZ LÓPEZ (EAJ-PNV)
DON JUAN CARLOS ALONSO MORAZA (ZBG-ZNU)
DOÑA SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE (ZBG-ZNU)
DON JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA (ZBG-ZNU)
DON LUIS MARIA SAUTU APELLÁNIZ (PP)

**CONCEJAL QUE NO ASISTE**
DON AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA (EH Bildu)

Abierto el acto público a las diecinueve horas, por orden de la Presidencia se trató el Orden del día previsto, adoptándose los acuerdos que paso a reseñar.

**1.- APROBACIÓN DEL ACTA DE LA SESIÓN ANTERIOR.**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Udala eratzeko bilerari buruzko aktaren zirriborroa ikusirik, Udalbatzak onartzea erabaki du aho batez.

Visto el borrador del acta de la sesión constitutiva del Ayuntamiento la Corporación por unanimidad acuerda aprobarla.

**2.- TALDE POLITIKOEN OSAERA ETA BEREN BOZERAMAILEAK EZAGUTZEA.**

**2.- CONOCIMIENTO DE CONSTITUCIÓN GRUPOS POLÍTICOS Y SUS PORTAVOCES**

Alkate-udalburuak Talde Politikoak eratzeko arauzko epean eta moduan eta Errege Dekretua, Toki Erakundeen Antolaketa, Jarduera eta Araubide Juridikoaren Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 EDko 23 artikuluan eta ondorengoetan ezarritakoaren babespean aurkeztutako idazkien berri eman du, taldeak honako hauek izanik:

- EHBildu Zuiaren udal-taldea: bozeramailea Unai Gutiérrez Urkiza jn. eta ordezkoa Inma Elorza Bergara and.
- EAJ-PNVren udal-taldea: bozeramailea Itziar Ircio Vea-Murguía and. eta ordezkoa Martin Gorrotxategi Menika jn.
- ZBG/ZNUren udal-taldea: bozeramailea Juan Carlos Alonso Moraza jn. eta ordezkoa Jose Antonio Eguiluz Abecia jn.
- PPren udal-taldea: bozeramailea Luis Mª Sautu Apellániz jn.

El Sr. Alcalde-Presidente da cuenta de los escritos presentados en tiempo y forma, al amparo de lo establecido en los artículos 23 y ss. del R.D. 2568/1986 de 28 de noviembre, por el que se aprueba el Reglamento de Organización, Funcionamiento y Régimen Jurídico de las Entidades Locales, de la constitución de los Grupos Políticos, quedando constituidos los siguientes:

- Grupo Municipal EHBildu Zuia: portavoz D. Unai Gutiérrez Urkiza y suplente Dª Inma Elorza Bergara.
- Grupo Municipal EAJ-PNV: portavoz Dª Itziar Ircio Vea-Murguía y suplente D. Martín Gorrotxategi Menika
- Grupo Municipal ZBG/ZNU: portavoz D. Juan Carlos Alonso Moraza y suplente D. Jose Antonio Eguiluz Abecia.
- Grupo Municipal PP: portavoz D. Luis Mª Sautu Apellániz

Udalbatzak udaleko Talde Politikoen eta horien bozeramaileen berri izan du.

La Corporación se da por enterada de los Grupos Políticos municipales y sus portavoces.

**3.- ALKATETZAK ALKATEORDEAK IZENDATZEAREN INGURUAN HARTUTAKO ERABAKIAK EZAGUTZEA.**

**3.- CONOCIMIENTO DE RESOLUCIONES DE LA ALCALDÍA RELATIVAS A NOMBRAMIENTO DE TENIENTES DE ALCALDE.**

Lehendakaritzak, alkateordeak izendatzeko 2015eko uztailaren 2ko 214. zk.ko Dekretuaren bitartez hartutako erabakiaren berri eman du, hurrenkera

La Presidencia da cuenta de la resolución adoptada mediante Decreto Nº 214 de fecha 2 de julio de 2015 por la que se nombran Tenientes de Alcalde, conforme al

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

honako hau izanik:

1. alkateordea: Agustin Otsoa Eribeko Landa jn.
2. alkateordea: Inma Elorza Bergara and.
3. alkateordea: Gorka Iriondo Gantxegi jn.

Udalbatzak honen guztiaren berri izan du.

**4.- DEDIKAZIOKO KARGUEN ORDAINSARIAK ALDATZEA.**

Alkate-udalburuak EHBildu taldearen proposamenaren berri eman du, zeinaren bitartez alkatearen dedikazio partziala %73koa eta urteko ordainsari gordina 33.096 €koa izatea proposatu den. Horrek aurrekontua gauzatzeko Udal Arauan dagoen egungo aurreikuspena aldatzea suposatzen du, hau da, %42,28ko bi dedikazio partzial -alkatea eta alkateordea- eta 21.492,80nako urteko ordainsari gordina aldatzea.

Idazkariaren txostena ikusirik.

Udalbatzak aho batez, baina Sautu zinegotzi jaunaren abstentzioarekin, honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Alkatearen dedikazio partziala lanaldiaren %73koa izatea onartzea, horren urteko ordainsari gordina 33.096 eurokoa izanik, 14 pagatan banatuta, eta aurrekontua gauzatzeko Udal Arauaren 26.3. artikulua aldatzea.

BIGARRENA.- Espediente hori hamabost egunez jendaurrean jartzea, Arabako Lurralde Historikoko Aldizkari Ofizialean iragarriz, alegazioak aurkezterik egon dadin.

HIRUGARRENA.- Erreklamaziorik

siguiente orden:

1º Teniente de Alcalde D. Agustín Otsoa Eribeko Landa
2ª Teniente de Alcalde Dª Inma Elorza Bergara
3º Teniente de Alcalde D. Gorka Iriondo Gantxegi

El Pleno se da por enterado.

**4.- MODIFICACIÓN DE RETRIBUCIONES DE CARGOS CON DEDICACIÓN.**

El Alcalde-Presidente da cuenta de la propuesta del Grupo EHBildu de establecer una dedicación parcial de la Alcaldía del 73% con una retribución bruta anual de 33.096€, lo que supone una modificación de la actual previsión existente en la Norma Municipal de ejecución presupuestaria de dos dedicaciones parciales –Alcaldía y Teniente de Alcalde- del 42,28% con una retribución bruta anual de 21.492,80 cada una.

Visto el informe de la Secretaria.

La Corporación por unanimidad, con la abstención del Concejal Sr. Sautu ACUERDA:

PRIMERO.- Aprobar la dedicación parcial de la Alcaldía del 73% de la jornada, con una retribución bruta anual de 33.096 euros distribuido en 14 pagas y modificar la Norma municipal de ejecución presupuestaria en su artículo 26.3.

SEGUNDO.- Someter el expediente a información pública por el plazo de quince días a efecto de alegaciones, mediante publicación de un anuncio en el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava.

TERCERO.- Considerar este acuerdo

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

izan ezean, erabaki hau behin betikotzat jotzea, eta egotekotan, gaiaren inguruko beste erabaki bat hartzea.-

LAUGARRENA.- Behin betiko erabakia arauzko modu eta epean argitaratzea.-

BOSGARRENA.- Unai Gutiérrez Urkiza alkate-udalburu jaunari, edo legearen arabera bere ordez ari denari, gaitasuna ematea erabaki hau gauzatzeko behar diren agiri guztiak egin ditzan udalaren izenean eta ordezkaritzan.

**5.- OSOKO BILKUREN ALDIZKAKOTASUNA.**

Ohiko Bilkurak hil bakoitzeko bigarren ostegunean, 19:00etan, egitea (abuztuan izan ezik) proposatu du alkate-udalburuak.

Udalbatzak aho batez ONARTU du Ohiko Bilkurak hilean behin, hileko bigarren ostegunean eta arratsaldeko 19:00etan (abuztuan izan ezik) egiteko aurkezteko proposamena.

**6.- INFORMAZIO BATZORDEAK SORTU ETA ERATZEA.**

Alkate-udalburuak informazio-batzorde iraunkorren eta horien eraketaren inguruan EHBildu taldeak egindako proposamena azaldu du:

- Ogasun Batzordea: zinegotzi guztiak
- Berdintasun Batzordea (talde bakoitzeko zinegotzi bana)
- Partaidetza Batzordea (talde bakoitzeko zinegotzi bana)
- Kontzejuen Batzordea (zinegotzi eta Kontzejuetako kide guztiak)

como definitivo si no hubiera reclamaciones y si las hubiera adoptar nuevo acuerdo al respecto.

CUARTO.- Publicar el acuerdo definitivo en la forma y plazo reglamentario.

QUINTO.- Facultar al Sr. Alcalde-Presidente D. Unai Gutiérrez Urkiza o a quien legalmente le sustituya para que en nombre y representación del Ayuntamiento formalice cuantos documentos sean precisos en ejecución de este acuerdo.

**5.- PERIODICIDAD DE LAS SESIONES PLENARIAS.**

El Sr. Alcalde-Presidente propone celebrar las Sesión plenarias Ordinarias los 2º jueves de cada mes, excepto el mes de agosto, a las 19:00 horas.

La Corporación por unanimidad APRUEBA la propuesta presentada de celebrar una vez al mes, con la excepción del mes de agosto, la Sesión Ordinaria del Pleno, coincidiendo con los segundos jueves, a las 19:00 horas. .

**6.- CREACIÓN Y COMPOSICIÓN DE COMISIONES INFORMATIVAS.**

El Alcalde-Presidente expone la propuesta del grupo EHBildu respecto a las Comisiones informativas permanentes y su composición:

- Comisión de Hacienda: todos los Concejales
- Comisión de Igualdad (un Concejal por cada grupo)
- Comisión de Participación (un Concejal por cada grupo)
- Comisión de Concejos (todos los Concejales y miembros de Concejos)

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

- Askotariko Gaietako Batzordea (zinegotzi guztiak, ostiraletan egingo dira goizeko 8:30ean, hilean bi edo hirutan).
- Euskara Batzordea (irekia).

Gaiaren inguruan eta, hain zuzen ere, Udalbatza osatzen ez duten pertsonekin osatuko diren batzordeen gainean, eztabaidatu da; zentzu horretan, Alonso jaunak esan du araudiak espresuki dioela informazio-batzordeak Udalbatzako kideez osatuta egongo direla, eta idazkariak berretsi egin du; zinegotzien parte-hartzeari dagokionez, Alonso jaunak proposatu du 11 zinegotziek batzorde guztietan esku hartzea. Alkateak esan dio batzorde batzuetan parte-hartzaileen kopurua murrizteko proposamenaren arrazoia operatiboa dela, baina ez dela guztiek esku hartzeko arazorik izango. Eta Kontzejuen eta Euskararen batzordeei buruz, berriz ere esan du eutsi egin behar zaiela, lantalde gisa bada ere, praktikoak direla uste duelako.

Azkenik, batzorde iraunkor gisa honako hauek onartzea proposatu du alkateak: Ogasuna (Kontuen ezinbesteko Batzordea barne hartuta dagoela ulertuta), Berdintasuna, Partaidetza, Askotariko Gaiak/Orokorra eta Bilkuraren Gaiak (azken hau hil bakoitzeko bigarren asteazkenean, 18:00etan, egingo litzateke, abuztuan salbu). Proposatu du, orobat, Kontzejuen eta Euskararen batzordeak edo lantaldeak mantentzea, horien osaeran zinegotzi guztiak egongo direla aurreikusiz.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

Ondoren zehazten diren batzorde iraunkorrak, horietan udaleko zinegotzi guztiak barne hartuta daudela, eta Kontzejuen eta Euskararen batzordeetarako zehazten diren pertsonen zerrenda onartzea:

- Comisión de asuntos varios (todos los Concejales, se realizarán los viernes a las 8:30 de la mañana y serán 2 o 3 mensuales)
- Comisión de Euskara (abierta).

Se debate el tema y concretamente la composición de las comisiones con personas ajenas a la Corporación; en este sentido el Concejal Sr. Alonso comenta que la normativa expresamente dice que las Comisiones informativas estarán integradas por miembros de la Corporación, aspecto que es ratificado por la Secretaria; respecto a la participación de los Concejales, el Sr. Alonso propone permitir la participación de los 11 Concejales en todas las Comisiones. El Alcalde dice que la propuesta de limitar el Nº de participantes en algunas Comisiones es por razones operativas, no obstante lo cual no habría problema en que participen todos y respecto a la de Concejos y Euskera insiste en su mantenimiento, aunque sean como grupos de trabajo, porque las considera prácticas.

Finalmente el Alcalde propone aprobar como Comisiones permanentes la de Hacienda (en la que se entendería incluida la Comisión obligatoria de Cuentas), Igualdad, Participación, Asuntos Varios/General y la de Asuntos de Pleno (esta última se celebraría los 2º miércoles de cada mes, excepto el mes de Agosto, a las 18:00 horas), y mantener bien sea como Comisiones o Grupos de Trabajos, la de Concejos y Euskera, previendo en la composición de todas ellas a todos los Concejales.

La Corporación por unanimidad ACUERDA:

Aprobar las Comisiones de carácter permanente que a continuación se detallan, integradas por todos los Concejales del Ayuntamiento, además de las personas que se detallan en la de Concejos y Euskara:

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

- Ogasun batzordea
- Berdintasun batzordea
- Partaidetza batzordea
- Informazio-batzorde orokorra: hilean bi edo hirutan bilduko da, ostiraletan, 8:30ean.
- Bilkurako gaiei buruzko batzordea: Bilkuraren aurretik egingo da, hileko bigarren asteazkenetan, abuztuan izan ezik.
- Kontzejuen Batzordea (Kontzeju guztietako kideek esku hartuko dute)
- Euskara batzordea (udalerriko talde ezberdinek esku hartuko dute).

Batzorde guztiek alkate-udalburua izango dute buru.

Alonso zinegotzi jaunak zehaztu du Kontzejuen eta Euskararen batzordeak ez direla berez batzordeak, lantaldeak baizik.

**7.- DIRUZAINA IZENDATZEA.**

Alkateak jakinarazi du diruzain EAJ/PNV taldeko pertsona bat izendatzea proposatzen duela EHBildu taldeak, eta horren bozeramailea den Ircio andreak esan du Gorrotxategi zinegotzi jauna izendatuko dutela.

Udalbatzak honako hau ERABAKI DU aho batez:

LEHENEGOA.- MARTIN GORROTXATEGI MENIKA jauna Zuiako Udalaren diruzain izendatzea.

BIGARRENA.- Inolako fidantza edo berme eratzeko derrigortasunetik salbuestea, kudeaketaren emaitzaren ardura Udalbatzako kide guztiek solidarioki gain hartuta.

**8.- KIDE ANITZEKO**

- Comisión de Hacienda.
- Comisión de Igualdad
- Comisión de Participación
- Comisión informativa de carácter general: se reunirá dos o tres veces al mes, los viernes a las 8:30 horas.
- Comisión de asuntos de Pleno: se reunirá con carácter previo a la celebración del Pleno, los segundos miércoles de cada mes, excepto agosto.
- Comisión de Concejos (participarán los miembros de todos los Concejos)
- Comisión de Euskara (participarán los diversos colectivos del municipio).

Todas las Comisiones serán presididas por el Alcalde-Presidente,

El Concejal Sr. Alonso matiza que las Comisiones de Concejos y Euskera no son tales, sino grupos de trabajo.

**7.- NOMBRAMIENTO DE TESORERO/A.**

El Alcalde da cuenta de la propuesta del Grupo EHBildu de nombrar Tesorer@ a una persona perteneciente al Grupo EAJ/PNV, concretando la portavoz del mismo Sra. Ircio nombrarle al Concejal Sr. Gorrotxategi.

La Corporación por unanimidad ACUERDA

PRIMERO.- Designar Tesorero del Ayuntamiento de Zuia a D. MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA.

SEGUNDO.- Eximirle de la obligatoriedad de constituir fianza o garantía de ninguna clase, responsabilizándose solidariamente todos los miembros de la Corporación del resultado de la gestión.

**8.- NOMBRAMIENTO DE**

**ORGANOETARAKO (Koadrilaren Batzarra, Gorbeialdeko Hondakinen Partzuergoa -Gobernu Batzordezko ordezkaria zehaztu-, Haurreskolak Partzuergoa, OAMIP eta BHIko Eskola Kontseiluak, Gorbeiako Parke Naturaleko Patronatua, Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkartea, Tokiko Agenda 21) UDAL ORDEZKARIAK IZENDATZEA.**

**- ZUIAKO KOADRILAREN BATZARRA:**

Azaroaren 20ko 63/89 Foru Arauak bere 14. artikuluan xedatutakoa kontuan hartuta, Zuiako Udalari dagokio Zuiako Koadrilaren Batzarreko 5 batzarkide izendatzea, eta Hauteskunde Lege Orokorraren 163. artikuluan aurreikusitako prozedura duela gutxi izandako Udal Hauteskundeetan zinegotziren bat lortu duten hautagaitzek lortutako emaitzei aplikatuz, EHBildu eta EAJ/PNV taldeei bina batzordekide eta ZBG/ZNUri batzordekide bat dagozkie.

Ondorengo izendapenak egin dira:

EHBILDU taldetik: UNAI GUTIÉRREZ URKIZA jn. eta INMA ELORZA BERGARA and.

EAJ/PNV taldetik: ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA and. eta CONCHI LÓPEZ LÓPEZ and.

ZBG/ZNU taldetik: JUAN CARLOS ALONSO MORAZA jn.

**- GORBEIALDEKO PARTZUERGOA:**

EHBilduk proposatu du talde

**REPRESENTANTES DEL AYUNTAMIENTO EN ÓRGANOS COLEGIADOS (Junta de Cuadrilla, Consorcio de Basuras de Estribaciones del Gorbea –concretar el representante de la Junta de Gobierno-, Consorcio Haurreskolak, Consejos Escolares CPVO e IES, Patronato del Parque Natural de Gorbeia, Asociación de Desarrollo Rural Estribaciones del Gorbea, Agenda 21 Local)**

**- JUNTA DE CUADRILLA DE ZUIA:**

Considerando lo dispuesto en la Norma Foral 63/89, de 20 de Noviembre en su artículo 14 corresponde al Ayuntamiento de Zuia nombrar 5 junteros en la Junta de Cuadrilla de Zuia, y aplicando el procedimiento previsto en el art. 163 de la Ley Electoral General a los resultados obtenidos en las Elecciones Municipales recientemente celebradas por las candidaturas que han obtenido algún/a Concejal, corresponde la atribución de dos Junter@s respectivamente a los Grupos EHBildu y EAJ/PNV y un@ a ZBG/ZNU.

Se realizan los siguientes nombramientos:

Por el Grupo EHBILDU: D. UNAI GUTIÉRREZ URKIZA y D.ª INMA ELORZA BERGARA

Por el Grupo EAJ/PNV: Dª ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA y Dª CONCHI LÓPEZ LÓPEZ

Por el Grupo ZBG/ZNU: D. JUAN CARLOS ALONSO MORAZA

**- CONSORCIO DE ESTRIBACIONES DEL GORBEA**

La propuesta de EHBildu es nombrar

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

honetako pertsona bat, Gobernu Batzordean ere ordezkari izango dena, eta ZBG/ZNUko beste bat izendatzea, talde horietako bozeramaileak honako izen hauek zehaztuz: Unai Gutiérrez Urkiza alkate jauna eta Jose Antonio Eguiluz Abecia jauna, hurrenez hurren.

UNAI GUTIÉRREZ URKIZA eta JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA jaunak Gorbeialdeko Partzuergoan Zuiako Udalaren ordezkari izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez, lehenengoa horren Gobernu Batzordearen bileretara joango dela zehaztuz.

**- GORBEIAKO PARKE NATURALEKO PATRONATUA**

EHBildu taldeak ZBG/ZNUko pertsona bat proposatu du, horren bozeramaileak Juan Carlos Alonso Moraza izango dela zehaztu duelarik.

JUAN CARLOS ALONSO MORAZA jauna Gorbeiako Parke Naturaleko Patronatuan Udalaren ordezkari izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez.

**- GORBEIALDEKO LANDA GARAPENERAKO ELKARTEA**

EHBilduk bere taldeko pertsona bat izendatzea proposatu du, hots, Gorka Iriondo Gantxegi.

Gorbeialdeko Landa Garapenerako Elkartean Udalaren ordezkari GORKA IRIONDO GANTXEGI jauna izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez.

**- OROKO ANDRE MARIAREN SANTUTEGIKO ZUZENDARITZA BATZORDEA**

a una persona de este grupo que será además el representante en la Junta de Gobierno y otra de ZBG/ZNU, concretando los portavoces de dichos grupos los nombres del Alcalde D. Unai Gutiérrez Urkiza y D. Jose Antonio Eguiluz Abecia respectivamente.

La Corporación por unanimidad ACUERDA nombrar a D. UNAI GUTIÉRREZ URKIZA y a D. JOSE ANTONIO EGUILUZ ABECIA como representantes del Ayuntamiento de Zuia en el Consorcio de Estribaciones del Gorbea, concretando que será el 1º el que asista a la Junta de Gobierno del mismo.

**- PATRONATO DEL PARQUE NATURAL DE GORBEIA**

El Grupo EHBildu propone una persona de ZBG/ZNU, concretando el portavoz de éste que sea D. Juan Carlos Alonso Moraza.

La Corporación por unanimidad ACUERDA nombrar a D. JUAN CARLOS ALONSO MORAZA representante del Ayuntamiento en el Patronato del Parque Natural de Gorbeia.

**- ASOCIACIÓN DE DESARROLLO RURAL ESTRIBACIONES DEL GORBEA**

El Grupo EHBildu propone nombrar una persona de su grupo, D. Gorka Iriondo Gantxegi.

La Corporación por unanimidad ACUERDA nombrar a D. GORKA IRIONDO GANTXEGI representante del Ayuntamiento en la Asociación de Desarrollo Rural Estribaciones del Gorbea.

**- JUNTA RECTORA DEL SANTUARIO NUESTRA SEÑORA DE ORO**

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

EHBildu taldeak ZBG/ZNU, PP eta EAJ/PNV taldeetako ordezkari bana izendatzea proposatu du, horien bozeramaileek Susana Martínez de Aramayona Uriarte and., Luis Mª Sautu Apellániz jn. eta Martin Gorrotxategi Menika jn. izango direla zehaztuz.

Oroko Andre Mariaren Santutegiko Zuzendaritza Batzordean Udalaren ordezkari SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE and., LUIS Mª SAUTU APELLÁNIZ jn. eta MARTIN GORROTXATEGI MENIKA jn. izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez.

**- OROKO ANDRE MARIAREN IKASTETXEKO ESKOLA KONTSEILUA**

EHBilduko taldeak ordezkari titular gisa EHBilduko pertsona bat eta ordezko bezala ZBG/ZNU taldeko beste bat izendatzea proposatu du, eta horien bozeramaileek Agustin Otsoa Eribeko Landa jn. eta Susana Martínez de Aramayona Uriarte and. izendatu dituzte, hurrenez hurren.

Oroko Andre Mariaren Ikastetxeko Eskola Kontseiluan ordezkari titular eta ordezko AGUSTIN OTSOA ERIBEKO LANDA jn. eta SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE and. izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez.

**- BIGARREN HEZKUNTZAKO INSTITUTUKO ESKOLA KONTSEILUA**

EHBildu taldeak ordezkari titular gisa EAJ/PNV taldeko pertsona bat eta ordezko bezala EHBilduko beste bat izendatzea proposatu du.

El Grupo EHBildu propone como representantes uno de ZBG/ZNU, otro del PP y un 3º de EAJ/PNV, concretados por l@s respectiv@s portavoces en Dª Susana Martínez de Aramayona Uriarte, D. Luis Mª Sautu Apellániz y D. Martín Gorrotxategi Menika.

La Corporación por unanimidad ACUERDA nombrar a Dª SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE, D. LUIS Mª SAUTU APELLÁNIZ y D. MARTÍN GORROTXATEGI MENIKA como representantes del Ayuntamiento en la Junta Rectora del Santuario Nuestra Señora de Oro.

**- CONSEJO ESCOLAR DEL COLEGIO VIRGEN DE ORO**

El Grupo EHBildu propone como titular una persona de EHBildu y suplente de ZBG/ZNU, concretadas por sus portavoces en D. Agustín Otsoa Eribeko Landa y Dª Susana Martínez de Aramayona Uriarte respectivamente.

La Corporación por unanimidad ACUERDA nombrar a D. AGUSTÍN OTSOA ERIBEKO LANDA y Dª SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE representantes del Ayuntamiento como titular y suplente respectivamente en el Consejo Escolar del Colegio Virgen de Oro.

**- CONSEJO ESCOLAR DEL INSTITUTO DE ENSEÑANZA SECUNDARIA**

El Grupo EHBildu propone como representantes titular a una persona de EAJ/PNV y suplente de EHBildu.

El Concejal Sr. Alonso expone que

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*✉ azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

Alonso zinegotzi jaunak esan du Eskola Kontseiluren batean egotea nahiko luketela, eta Ircio zinegotzi andreak adierazi dio Haurreskolak Partzuergoan egon litezkeela, baina lehenengoak erantzun dio nahiago dutela Murgiako BHIko ordezkari izatea eta ZBG/ZNU taldeko bozeramaile gisa honako proposamen hau egin du: Susana Martínez de Aramayona Uriarte andrea ordezkari titular eta EAJ/PNVko zinegotzia ordezko izendatzea.

Alkateak dio ez diola beren proposamenaren ordez planteatutakoari arazorik ikusten eta azken hau bozkatu eta Udalbatzak onartu egin du gehiengo osoz, hau da, EHBildu (3), ZBG/ZNU (3) eta PPko (1) zinegotzien aldeko botoarekin eta EAJ/PNVkoen (3) kontrakoekin. Horrenbestez, ZBG/ZNU taldearen proposamena berretsi eta Murgiako BHIko ordezkari titular SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE and. eta ordezko gisa ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA and. izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak.

**- HAURRESKOLAK PARTZUERGOA**

EHBilduk ZBG/ZNU taldeak Murgiako BHIko ordezkari izendatzeko aurreko puntuan egindako proposamena onartu du, hau da, dagokigun Partzuergoan ordezkari titular EAJ/PNVko pertsona bat eta ordezko gisa ZBG/ZNUko beste bat izendatzea. Hala, talde horien ordezkariek Itziar Ircio and. eta Susana Martínez de Aramayona and. proposatu dituzte, hurrenez hurren.

Haurreskolak Partzuergoan Udalaren ordezkari titular ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA and. eta ordezko gisa SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE and. izendatzea ERABAKI DU Udalbatzak aho batez.

les gustaría estar presentes en uno de los Consejos escolares, manifestando la Concejal Sra. Ircio que podrían tener la representación del Consorcio Haurreskolak, a lo que el 1º contesta que prefieren la representación en el IES de Murgia y como portavoz del Grupo ZBG/ZNU realiza la siguiente propuesta: nombra como representante titular a Dª Susana Martínez de Aramayona Uriarte y suplente a un@ Concejal de EAJ/PNV.

El Sr. Alcalde dice que no ve problema alguno a la propuesta planteada en lugar de la de su grupo y se somete esta última propuesta a votación y la Corporación por mayoría absoluta, con el voto favorable de l@s Concejales de EHBildu (3), ZBG/ZNU (3) y PP (1) y el voto en contra de EAJ/PNV (3) ratifica la propuesta de ZBG/ZNU y la Corporación ACUERDA nombrar representantes en el I.E.S. de Murgia a Dª SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA URIARTE como titular y Dª ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA como suplente.

**- CONSORCIO HAURRESKOLAK**

El Grupo EHBildu acepta la propuesta realizada por el Grupo ZBG/ZNU en el punto anterior con motivo de la elección de la representación en el IES de Murgia, de nombrar como representante titular en el Consorcio que nos ocupa a una persona del EAJ/PNV y suplente de ZBG/ZNU, concretando sus respectiv@s portavoces las personas de Dª Itziar Ircio y Dª Susana Martínez de Aramayona.

La Corporación por unanimidad ACUERDA nombrar como representantes titular y suplente del Ayuntamiento en el Consorcio Haurreskolak a Dª ITZIAR IRCIO VEA-MURGUIA y Dª SUSANA MARTÍNEZ DE ARAMAYONA

*Plaza del Ayuntamiento, 1 ● C.P. 01130 ● Murgia ● Araba ● C.I.F. P0107200-H ● ☎ 945 430005 ● Fax: 945 430366*
*azuia.general@ayto.alava.net ● Web: www.zuia.con*

URIARTE respectivamente.

Amaitzeko, alkateak esan du ez dela beharrezkoa Elkarkidetzako Kontrol Batzordean eta Tokiko Agenda 21ekoan izendapenik egitea.

Finalmente el Alcalde comenta que no es necesario realizar nombramiento en la Comisión de Control de Elkarkidetza y Agenda Local 21.

Eta aztergai gehiagorik egon ez denez, alkate-udalburu jaunak bilkura amaitutzat eman du 19:30ean, eta nik, idazkaria naizen honek, hori guztia egiaztatu dut.

Y no habiendo más asuntos que tratar, por el Sr. Alcalde-Presidente se dio por finalizada la Sesión siendo las 19:30 horas, de todo lo que como Secretario Certifico.

Idazkaria / La Secretario,